

noaua

Foru Aldundiak semaforo bidezko pasabidea proposatu du Troiarako

Martxoaren 8rako deialdi ugari egin dira


Jendetza batu zen indarkeria matxistaren aurkako elkarretaratzean




Usurbilgo pentsiodun eta jubilatu ugari batu ziren Donostian egin zen manifestazioan

“Erostekeo ahalmena galtzen ari gara urtez urte”

Usurbilen,
zure auto-tailerra




Eusebio Ramon



Atallu
AUTOAK

Motorra
Balaztak
Mekanika
Esekidurak
DOHAINIK IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua



EuroTaller

Atallu industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).
MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA
943 36 21 63 (24H)
•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es

Lanak amaituta!
BI ETXE BAINO EZ
DIRA GERATZEN!



- Orain etxea erosterakoan garajea opari.
- (Ate automatikoarekin itxitako garajeak)
- Sukaldeak muntatuak.
- Kalitate onekoak.
- Leku pribilegiatua.
- Bisita, konpromisorik gabe




contacto@viviendaslanin.com

LANIN ETXEBIZITZAK
943468860 / 670828696

Albiste iruditzen

15 urte, Egunkaria gabe

15 urte Euskaldunon Egunkaria itxi zutenetik. Itxia bai, baina ez isildua, urtemugaren harira, otsailaren 20an Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean egindako ekitaldian oroitarazi zuten. Memoria freskatu zigun, ekitaldian proiektaturiko Lander Garroren dokumentalak. Ikus-entzunezkoak 2003ko otsailaren 20 ilun hartara eraman gintuen. Egunkariaren itxiera bidegabea, atxiloketak, inkomunikazio egunak, torturak, espetxea... Eta balantzaren bestaldean, egoera zail eta negargarrian, Euskaldunon Egunkariako langileek aurrera egiteko erakutsi zuten konpromiso irmoa.

Iraganaz, orainaz eta etorkizunaz aritu ziren, urte eta erdiz espetxeratua izan zuten Iñaki Uria Euskaldunon Egunkariako Kontseilari ordezkaria, Joan Mari Torrealdaik Egunkariako lehendakaria eta Beatriz Zabaldon Berriako lehendakaria, Martxelo Otamendik aurkezturiko ekitaldian.

Ezinbesteko tresna

Orainaz kezkatua ageri zen Uria. “Merka-



Otsailaren 20an Andoainean egin zuten ekitaldian, Joan Mari Torrealdaik hartu zuen parte.

tuak ez dio eusten euskarazko komunikabideen biziraupenari”. Testuinguru honen aurrean, “euskaldunok behar ditugun komunikazio eta herri egiturak sortzea, hori da kontua” zioen.

Torrealdaik nabarmendu zuenez, Egunkariatik Berriara katea ez da eten, “Berriari bizi baita berriro Egunkaria”. Globalizazioaren garai honetan, zioenez,

“inoiz baino beharrezkoagoa izango da, izango zaigu hizkuntza komunitatea bere lanabes eta tresnen jabe, arduradun eta kudeatzaile izatea. Hizkuntza, eskola, egunkaria, tresna ezinbestekoak ditugu etorkizunari begira segitzeko. Iragana ahaztu gabe, geroaz jabetzeko. Jabe gaitzen gure buruaz geroan, gudan da geroa, geroa zugan”.

Laburrean

Tipi Tapako zozketan saritutako zenbakiak

Igandeko Tipi Tapan, 3 erosketa bale zozketatu zituen Hurbilgok. Bat 150 eurokoa, beste biak 20 eurokoak. Lehen zenbaki saritua: 0601. Beste biak: 0099, 0093.

1975eko kinto bazkaria: amaitu da izen-ematea

Datorren astean, martxoaren 10ean larunbatarekin batuko dira, sagardotegian. Izena emateko epea otsailaren 23an amaitu zen.

Martxoaren 10ean, 1973ko kinto bazkaria

Izena emateko whatsapp edo mezua bidali: 615 756 893 / 665 731 465. “Animatu zaitezte, egun bikaina pasako dugu!”. Epea, martxoaren 3ra arte.

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noqua.eu ||| www.noqua.eu

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordintzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noqua.eu

Disenatu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noqua.eu:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

María Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrerria!



Luis Aranalde

Ospakizun laikoak

Duela egun batzuk notizia bitxi bat irakurri nuen; hain zuzen ere “momentos laicos” deritzan enpresa baten propaganda. Zeremonia klase guztiak ospatzen trebatua omen dago; “bizitzaren une nagusienak ahalik eta egokien ospatu behar dira, nahiz eta gune erlijioso batean ez diren egiten. Gure erakundeak lagunduko dizue momentu berezi horiek aiantzezinak izan daitezen”. Beren ustez errito laiko horiek ospakizun erlijiosoak bezain garrantzitsuak eta egokiak izan daitezke.

Gaur egun gazte gutxiago ezkontzen da eta gainera gehiengoak zibiletz egiten dituzte ezteiak. Sekularizazioa aspaldidanik dator eta geldi ezina da. Fenomeno honek adierazten du alderdi erlijiosoak zuen presio soziala desagertu dela guztiz. Garai batean elizaz egiten zuten familiak behartuta, presio sozialarengatik. Gazteen artean erlijioak gero eta eraginkortasun gutxiago du bizitzari zentzua emateko orduan.

Berdin esan genezake hiletan gainean. Lehen kristau

erlijioari lotutako errito bat zen. Orain, aldiz, hildakoari azken agurra egiteko orduan aukera piloa daukazu batere elizara joan gabe. Egia da oraindik gutxiengo bat dela azken agur hori elizatik kanpo egiten diona. Oro har tanatorioetan burutzen dira horrelako despedidak. Elizatik kanpo behin bakarrik izan naiz buru horrelako zeremonia laiko batean. Ezkontzetan, aldiz, lauzpabostetan. Elizaz ezkontzen direnak % 20 dira Euskadin; hildakoari azken agurra oraindik % 80ak elizaz egiten du.

Sinesmena ez edukitzeak ez du esan nahi garrantzia gutxiago ematen zaionik bizitzan zehar egiten ditugun zeremoniei. Elizak monopolizatu egin ditu sarbide errito horiek, eta modu totalitarioan garai batzuetan. Berak agindutako estiloko ospakizunak burutzen ez bazenituen, zokoratuta gelditzen zinen sozialki. Jaiotzako, ezkontzako eta heriotzako erritoak behar bezala egin behar ziren (“como Dios manda”).

Hari honi lotuta, bi gogoetaxo egingo nituzke:

1-Etimologikoki erlijio hitzak lotzea esan nahi du, batzea. Lotura hori batzuentzat Jainkoare-

kin edo transzendentziarekin da; beste batzuek aldiz kosmosarekin ulertzen dute; badira inguruko gizakiak ere sartzen dituen kontzeptu horretan. Izan ere, bikote baten konpromisoa, haur baten jaiotza, maite dugun norbaiten heriotza..., une garrantzitsu horien pozak, nahigabeak eta abarrak adierazteko errito egokiak eskatzen dira. Hori da hain zuzen ere zeremonia laikoen eta erlijioaren helburua.

2-Sakratu kontzeptua argitu nahi nuke. Bikote batek erabakitzen duenean elizaz kanpo ezkontzea, hildakoari despedida tanatorioan bakarrik egiteko deliberamendua hartzen denean, segituan hasten gara esaten errito laiko edo profano baten aurrean gaudela. Nire uste apalean hitz horiek zaharkituta daude. Garai batean mundua bitan zatitzen genuen: profanoa eta sakratua. Sakratua zen erlijio instituzionalizatu batean sartzen den guztia eta erlijioari lotzen ez zenari profanoa esaten genion. Muga horiek ez dira existitzen. J.S. Bachen koral ezaguna “Jesus, gizakion poza” bezain sakratua da niretzat Lertxundiren “nere herriko neskatxa maite”, edo Haende-

len Mesias bezain sakratua da Violeta Parraren “gracias a la vida”. Biblian daukagu adibiderik argigarriena agian: “Kantarik ederrena” liburuxka. Ez da jainkorik aipatzen. Bikote baten maitasuna kantatzen du: “zure maite lazta-nak ardo bano gozoagoak dira... ezar nazazu bihotzean eta besoan zigilu bezala...”. Bizia da sakratua bere alderdi eder, atsegin eta zail guztietan. Mundua da sakratua dena batu eta zabaldu egiten duen indar misteriotsuarekin. Maitasuna da sakratua. Zerbaitegatik esan zuen San Joanek: “Jainkoa maitasuna da”.

Gure bizitzako gertakizun nagusienak markatzeko erabiltzen ditugun zeremonia guztiak dira sakratuak eta begirune bera merezi dute denek maitasunez, enpatiaz eta gizatasunez jantzirik dauden bitartean. Ospakizun egokien monopolioa ez dauka elizak.

Barne muinetaraino sartuta dauka gizakiak errito gura. Baina, gero eta nekezago sin-tonizatzen duenez erlijioaren ospakizunekin, zeremonia soilagoen eta gaurkotuagoen bila dabil. Aurki ditzala opa diot.

Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Aintzane Oiarbide foru diputatua: “Usurbilgo alkatearen jokabidea ez zaigu onargarria iruditzen”

Troiako oinezko pasabideak Udalaren eta Foru Aldundiaren arteko ika-mika eragin du. Alkateak duela hilabete inguru egin zituen adierazpenei irimo erantzun dio Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako foru diputatuak.

Troiako oinezkoen pasabidearen inguruan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren azalpenak falta ziren. Duela aste batzuk Usurbilgo Udalak egin zituen adierazpenen aurrean, Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako foru diputatuak garbi utzi nahi du lanean ari direla N-634 errepidean oinezkoentzat soluzio bideragarri bat aztertzen, eta otsailaren 23an Usurbilgo Udalarekin egindako bileran proposatu zutela balizko soluzio bat: semaforo bidezko pasabidea.

“Elkarlanean eta elkarrizketan gauzak hobeto egiten dira”

“Ez zaigu onargarria iruditzen Usurbilgo alkatearen jokabidea, Troiako pasabidea dela eta erruak beste erakundeei botatzeko grinarekin. Elkarlanean eta elkarrizketan gauzak hobeto egiten dira, erruak bata besteari bota beharrez”, Aintzane Oiarbidek prentsa ohar bidez aditzera eman duenez.

Era honetan, Xabier Arregi alkateak duela aste batzuk esandakoak zehaztu nahi izan ditu. Foru diputatuaren esane-



Markel Olano eta Aintzane Oiarbide, urtarrilaren 29ko argazkian, Aritzetako aparkalekua handitu egingo zela iragarri zutenean. Argazkia: gipuzkoa.eus

AINTZANE OIARBIDE, BIDE AZPIEGITURETAKO FORU DIPUTATUA

**Troiako pasabidean
“dirurik jarriko ez
duela esan duen bakarra
Usurbilgo Udala izan da,
konpetentziak beste
administrazio batzuenak
direla argudiatuz,
eta hori ez da horrela”**

tan, orain artean ez da inoiz erakunde bakoitzak finantzatu beharreko planteamendurik mahai gainean jarri eta alkateak hori ondo zekiela. Beraz, Troiako oinezko pasabidearen inguruan “dirurik jarriko ez duela esan duen bakarra Usurbilgo Udala izan da, konpetentziak beste administrazio

batzuenak direla argudiatuz, eta hori ez da horrela”. Aintzane Oiarbidek dioenez, “oinezko ibilbidea Usurbilgo herritarrek erabiltzen duten heinean, Usurbilgo Udalaren ardura ere bada, eta ez da zilegi beste administrazio batzuen gainean uztea, norberaren aldetik inolako ekarpenik egin gabe”, Bide Azpiegituretako diputatuak adierazi duenez. Usurbilgo alkateak egin duen ekarpen bakarra “ekonomikoki justifika ezinak diren soluzioak eskatzea izan da”.

Urtarrila amaieran, Xabier Arregik estu hartu zuen Foru Aldundia. “Usurbildarrak bigarren mailako herritartzat gaitu” zioen prentsa-ohar hura ez zen oharkabean pasa Donostiako Gipuzkoa Plazako bulegoetan. Adierazpen horren aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak

dio usurbildarren segurtasuna bermatzea bilatzen duela eta horretan ari dela lanean. “Alkateak nahi duen proiektuaren kostua 2’4 milioi eurokoa da. Inbertsio hori ezin daiteke inolaz ere justifikatu, Gipuzkoan zehar antzeko egoeratan hartzen ari garen neurriekin alderatzen badugu. Gainera, soluzioak helburua betetzeaz gain eraginkorra ere izan behar du, diru publikoaz ari garelako. Beraz, usurbildarrak ez dira, alkateak salatu duen modura, inondik inora bigarren mailako herritarrak”, Aintzane Oiarbidek adierazi duenez.

Alternatiba gisa, semaforo bidezko pasabidea

Otsailaren 23an batu ziren Usurbilgo Udala eta Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentua. N-634 errepidea gurutzatzeko semaforo bidezko pasabidearen aukera aztertzen aritu zirela jakinarazi du Foru Aldundiak, baina Udalaren inplikazioa beharrezkoa izango dela dio, “izan ere, errepidea gurutatu ondoren, herrirainoko jarraipena eman behar zaio oinezkoari”. Aintzane Oiarbideren esanetan, “ardura hori Usurbilgo Udalarena denez, alkateari dei egiten diot horretan lanean has dadin”.

Oroigarria

Esker onez

Gure familian egun bereziak bizi izan ditugu aitaren partitzearekin. Gogorrek bezain hunkigarriak izan dira egun hauek eta jaso

ditugun samin-agur guztiak eskertu nahi ditugu lehenik. Aldi berean, lerro hauen bitartez, Donostiako Poliklinikako 2B eremuko lantaldeari

gure esker ona adierazi nahi diogu. Sendagile eta erizain talde osoak eman diguzuen tratua oso profesionala eta oso goxoa izan da, sentibera-

tasun handikoa. Eskerrik asko bene-benetan!

Usarralde Arantzadi sendia.

Martxoaren 8a, planto egiteko eguna

Eta planto egingo bagenu? Eta egiten dugun guztia egingo ez bagenu?, martxoaren 8an ikusiko dugula dio Euskal Herriko Mugimendu Feministak. Iaz 70 herrialdeek baino gehiagok egin bezala, egun horretarako deitu den mundu mailako greba feministarekin bat egin eta emakumeak planto egitera deitzen dituzte, “menpean hartzen eta zapaltzen gaituen sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala salatzen”.

Lan esparrua, politika, bizitza eta ekonomia zeharkatzen dituen defentsarako greba soilik ez, mugimendu feministatik iragarri dutenez, “eredu osoa aldatuko duen proposamen politikoekin aterako gara kalera!”. Datorren martxoaren 8a, bide luze baten abiapuntua izatea nahi dute. “Bide horretan, aliantza berriak ehunduko ditugu, bateratuz eta elkar ezagutuz, gure borrokak berriaz berri pentsatuz, erresistentzia berriak eraikiz, eta baztertzen gaituen mundutik askatuz, berriz alternatiba feminista bat sortzeko helburuarekin”.

Hamaika arrazoi grebarako

Greba egiteko hamaika arrazoi



Euskal Herriko Mugimendu Feministak antolatu du martxoaren 8ko greba.

aipatzen ditu mugimendu feministak, zer eraldatua badago eta: egungo gizarte eta ekonomia eredu berraztertzeko, sexuaren arabera lan banaketa suntsitzeko, erabakitze eremuetan berdintasunez parte hartzeko, baldintza ezberdinetan askotarikoak garelako aitortzeko, indarkeriatik libre egon den bizitza izateko...

Emakumeek nola bat egin dezakete grebarekin?

- Lantoki eta ikasgeletan lan uzteetara batuz.
- Herri eta hirietako mobilizazioetan parte hartuz.
- Zaintza lanak azaleratzeko amantala (edota beste edozein tresna) balkoitik eskegiz.
- Besoko morea jantziz.
- Zaintzeari utziz, “lan hori

beste emakumeen esku utzi gabe, besteek egin dezatela!”.

- Greba zabalduz eta zure eskualdean antolaketan parte hartuz.
- Merkaturan kontsumitzeari utziz, “batez ere langileen esplotazioaren ikur diren enpresa handietan, objektutat hartzen gaituztenak”.

Gizonezkoa izan eta Martxoaren 8ako geldialdiarekin bat egin nahi duenak, ekarpenok egin ditzake

- Aita bazara zure seme-alabetaz arduratu.
- Laguna bazara, zure lagunengandik zaindu.
- Laneko laguna bazara, zure burua emakume langileen lana egiteko eskaini.
- Laneko nagusia bazara, zure enpresan lan egiten duten

- emakumei elkartzatua adierazi eta arazoak saihestu.
- Eskolako kidea bazara, eskolara joan behar ez duten kideak eta haien lanuztea babestu.
- Irakaslea bazara, martxoaren 8an zerrendarik ez pasatu.
- Langilea bazara, atera zaitez kalera “bizitzaren” alde.

- Familian zaintza beharrik izanez gero, hasi ohituraz emakumeok betetzen dugun lanotan pausuak ematen.
- Emakume batekin sexu-harreman erlaziorik baduzu, martxoaren 8an kalean egoten lagundu.
- Komunikabideetan lan egiten

- baduzu, zure esku dagoen guztia egin emakumeek eman ditzaten egun horretako berriak.
- Mugimendu feministako gizon militantea bazara, zabaldu mezua.
- Martxoaren 8ko kontzentrazioa bazoaz ez eman ordenarik eta ez zuzendu manifestazioa.

Martxoaren 8ari begirako deialdiak

Martxoak 4, igandea

■ 10:30 29. Lilatoia Donostiako Bulebarretik. Hamarnaka usurbildarrek parte hartuko dute. Oharra: lasterkariaren poltsa (dortsala, nikia, bisera...) eskuratzeko martxoaren 2an eta 3an, 11:00-14:00 / 16:00-20:00 artean, Donostiako Emakumeen Etxean (Okendo 9, Donostia).

Informazio gehiago: lilaton.es
Antolatzailea: Atletico San Sebastian.



Martxoaren 8an, emakume ekintzaileen solasaldia antolatu dute Kabiienen.

Martxoak 8, osteguna

■ Egunean zehar, greba feminista.

■ 11:00 Agerraldia Usurbilgo Udaletxe aurrean.

■ 18:00 Emakume ekintzaileen solasaldia Kabiienen. Sarre-
ra librea.

Antolatzailea: Kabiene elkarlan gunea.

en. Parte hartuko duten bertsolariak: Amaia Agirre, Miren Artetxe eta Eli Pagola. Gai jartzailea: Ainhoa Agirreazaldegia. Txartelak: aurrez salgai Artzabalen. Txartel kopurua, mugatua.

Antolatzaileak: Bota Puntutaba bertso eskola, Matrakak Talde Feminista eta Usurbilgo Udala.

roa Oiardo Kiroldegian.

■ Bideratzailea: Emagin Elkar-
tea.

■ Ordutegia:

-Martxoak 16 ostirala, 16:00-
20:00.

-Martxoak 17 larunbata, 09:30-
13:30.

■ Izen ematea: (martxoaren 14a baino lehen): 943 377 110 parekidetasuna@usurbil.eus
Antolatzailea: Usurbilgo Uda-
la.

Martxoak 16-17

Autodefentsa feminista ikasta-

Martxoak 9, ostirala

■ 21:00 Bertso-afaria Artzabal-

Martxoaren 9an, bertso-afaria Artzabalen

Lerrook irakurtzen dituzuenarako honez gero agian agortuak izango dira, Martxoaren 8aren harira, biharamunean, hilaren 9an Artzabalen antolatu duten bertso-afarirako sarrerak. Txartelak salgai jarri aurretik jendea eskean zebilen jada. 70 lagunentzako lekua dago Gure Pakea Elkartearen egoitzako jatetxean. Bakarren bat geratzen bada, Artzabalen izango duzue eskuragarri.

■ 21:00 Bertso-afaria Artzabalen. Parte hartuko duten bertsolariak: Amaia Agirre, Miren Artetxe eta Eli Pagola.

■ Gai jartzailea: Ainhoa Agirreazaldegia.



Amaia Agirre, Miren Artetxe eta Eli Pagola (argazkian) arituko dira kantuan.

Martxoak 8, greba feminista

■ 11:00 Agerraldia Usurbilgo udaletxe aurrean.

■ 11:00-15:00 / 18:00-22:00 Euskal gehiengo sindikalak (LAB, ELA, Steilas, ESK, Hiru, EHNE) deitutako lan uzteak.

■ 12:00/20:00 Mobilizazioak hiriburuetan (Donostiakoak Bulebarretik).

Informazio gehiago:

grebafeminista.wordpress.com

Greba feministaren aldeko mozioa

Otsailaren 27an Usurbilgo Udaleko udalbatzak egitekoa zuen osoko bilkuran, Martxoaren 8rako deitua dagoen greba feministarekin bat egiteko mozioa aurkeztekoa zen EHBildu, bozkatua eta onartua izan zedin. PSE-k ere bigarren mozio bat erregistratua zuen saio horretarako. Sexu erasoen aurkako app bat sortzea proposatzen duen testua hain zuzen. Mozio hauen gaineko xehetasunak, astebete barru eskainiko dizkizuegu.

Emakume ekintzaileekin solasean

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguneko greba-deialdiarekin bat eginez, solasaldi bat antolatu dute Kabiienen. 18:00etatik aurrera, hainbat emakume ekintzailek beren ibilbide profesionalaren inguruko gogoetak egingo dituzte; tartean izango dira Miren Narbaiza (MICE), Leire Cancio (Elhuyar), Arrate Imaz (Loratu), Oihane Iribar (Xixahori) eta Idoia Torregarai (Barretartia). Ekitaldiaren helburua emakume profesionalen lana ezagutaraztea da eta beste emakume batzuk ekintzaile izatera animatzea. Informazio gehiago: kabiene.com/MARTXOAK8

Martxoaren 8ari eta greba feministari begira

Martxoaren 8an emakumeek planto egiteko zabaldu den deialdia Usurbila ere heldu da. Greba feminista egun honen bezperatan, zenbait herritarrekin bildu da NOAUA!. Guztien ahotan, greba honen beharra eta Martxoaren 8a oraindik aldarrikapen eguna izateko hamaika arrazoi. Usurbilen nahiz Euskal Herrian, aurrekaririk ez duen greba deialdi baten atarian gara.

Udal parekidetasun saila: “Jakinmin handia dago”

Martxoaren 8rako deitua dagoen greba feministarekin bat egitear zen Udala, aldizkari hau inprentara bidean zihoala. Astearte arratsalderako deitua zuten osoko bilkuran, udal gobernu taldeak aurkezturiko mozioa onartzekoa zen udalbatza. Mozioak bat egiten du, Euskal Herriko mugimendu feministak astebete barrurako deitua duen greba feministarekin.

Udal parekidetasun sailetik aurrekaririk ez duen deialdi honen baliagarritasuna nabarmentzen dute, “emakumeok guk hartutako papera betetzen ez badugu, gizarte honetan benetan ikusteko horrek zer eragin duen. Ikus dadin, zer gertatuko den emakumeok benetan planto egiten badugu”,

dio Josune Estellak, eremu honen ardura duen udal gobernu taldeko kide eta zinegotziak.

Agerian geratuko diren egoera anitz eta errealtate bidegabean artean, lan munduan gertatzen ari dena plazaratuko da. Zeintzuk diren emakumeen lan baldintzak, gizonen ordainsariekin dagoen alde, ... Sarritan, “lan gaizki ordainduak, errekonozitu gabek” izaten baitira. Hezkuntza mundua hurbiletik bizi du Josunek. “Ezberdintasun nabariak daude lanpostuetan. Hezkuntzan, ikasleak zenbat eta adinez txikiagoak izan, orduan eta emakume gehiago dira hezitzaileak. Guri ere dagokigulako zaintza hori lan munduan”, nabarmentzen du Estellak.

Ez bakarrik lan munduan, baita etxean ere. “Bizitzaren

ongizate horretako lan oinarrizkoenak” egiten dituzte emakumeek, Maria Salsamendi parekidetasun eremuko udal teknikariak nabarmendu digunez. Datu argigarri baten berri eman digu: “Gizarteko lanaren %56a emakumeek egiten dute, baina ordainsaririk gabeko lanaren %74a”. Josunek gaineratu duenez, “badirudi zure etxekoa egiten duzula, baina azkenean gizartea zaintzen ari zara”.

Aldarri guztiak bateratuta

Indarkeriaren aurka eginiko lanketa edota kontsumoan emakumeek duten papera ikustarazteko ere baliatuko da greba egun hau. Finean, emakumeen eskubideei lotutako aldarri guztiak bateratuko ditu planto egiteko hitzorduak. Bezpera hauetan, adierazi digutenez, “jakinmin handia



Josune Estella eta Maria Salsamendi, Parekidetasun sailako ordezkariak.

dago”. Pentsa, “sare sozialetan etengabekoa da nola antolatua, zer egin jasotzen duten mezu mugimendua”.

Parte hartzera animatzen dute udal parekidetasun sailetik, “ikusi eta baloratu dadin benetan gure papera zein den mundu honetan”. Arlo guztietan; etxean, lanean, eskoletan, zaintza lanetan...

Ana Urdangarin: “Kalera atera behar gara”

Beharrezkoa iruditzen zaio Ana Urdangarini, Euskal Herriko mugimendu feministak deitu bezala, Martxoaren 8an planto egitea. Ezinbestekoa, ezkutuan geratu ohi den errealtatea azaleratzeko. “Emakumeon lana gizartean fisikoki ikustarazteko, zenbaterainoko garrantzia eta eragina duen ikusteko”, adierazi dio NOAUA!ri.

Lan horren guztiaren atzean dagoena kaleratzeko baliagarria izango dela iruditzen zaio usurbildarrari, astebete barru deitua dagoen greba feminista. Eta egun horri begira, ez du zalantzarik. “Kalera atera behar gara. Borroka guztietan bezala,

bat egitea, batze hori garrantzitsua izango da bai lantokietan, baita gainerako eremu guztietan ere”, Urdangarinen esanetan.

Hamaika arrazoi daude bere ustez planto egiteko, eta denak norabide berean lerrotatu daitezke. “Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna oraindik ez da erreala”, gogorarazten digu. Eguneroko txikikeria handi horietatik hasita. Etxeko lanak jarri dizkigu adibide gisara. “Mutil lagunak etxean laguntzen duela esaten da. Kontua ez da laguntzea. Berak etxean egin behar duena egitea, emakumeak egiten

duen moduan”, nabarmendu du Anak.

Halere aurrerapauso nabarmenak eman dira eta ematen ari dira bere ustez. “Geroz eta gizon gehiago daude bat eginda, berdintasunaren bidean, beste pentsaera batekin”, dio. Baina noski, gogorarazten digunez, “zoritarrez eremu askotan asko dago egiteko oraindik. Lehendik datozkigun oztopoak bueltaka ditugu, klixe oso potenteak”.

Martxoaren 8ko aldarriak egunerokoan presente izan behar harko genukeela ohartarazita, egun seinalatua izaten da berarentzat eta ingurukoentzat.



“Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna oraindik ez da erreala”.

Urte askotan, neska taldea biltzen zuten eguna gogorarazteko. Grebara doaz aurtan. “Oso ondo ateratzea espero dugu”.

“Gizarte osoa ukitzen duen gaia da”

Astebete baino gutxiago falta da Martxoaren 8ko greba feministarako. Eta gaia pil-pilean sumatzen du Aintzane Iribarrrek. Hezitzaile eta terapeuta gisa lan egiten du, bestek beste, sorteri ezberdinetako adin txikikoekin. Lankideekin duen foroan galdera eta zalantza ugari planteatzen ari dira asteotan. Zer da emakume izatea? Gizonek ere greba egin behar lukete edo emakumeak lagundu greba egin dezaten? “Eztabaida handia da, bai eremu pertsonal zein profesionalan hausnartzeko”, NOAUA!ri adierazi dionez.

Sorterriaren arabera, martxoaren 8arekiko emakume batek izan dezakeen ikuspuntu ezberdina nabarmentzen du Aintzane. Jatorri ezberdinetako herritarrekin lan egiten duenez, ikuspuntu guztiok uztartzea ez dela lan erraza izaten dio. “Noraino errespe-



“Errekonozimendu egun baten gisara hartzen dut, emakume izateagatik harro sentitzeko eguna”.

tatu dezaket edo inposatu nire ikuspuntua? Gizarte eraldatzen ari da, geroz eta jatorri ezberdinetako herritar gehiago, ikuspuntu gehiago dago. Nola ez iritsi nirea inposatzera?”

Pertsona adina emakume izateko modu, pentsaera aldarrikatzen ditu. Eta errealitate anitzon aurrean, jarrera inklusiboa izan beharra. Argi dago, hamaika lan egiteko dago pa-

rekidetasunerantz, baina bere esanetan, “batzuetan ahaztu egiten zaigu zer egin den, gure ama eta amonek bizi izan zuten garaian ahal zuten moduan egindakoa errekonozitzea, eta zer egiten ari garen”. Aurrerapausoak eman direla dio, zer hobetua badugula noski, eta bereziki keinu matxista horien gan jarri beharko genukeela arreta. “Interesgarria da norberak esan eta egindakoaz jabetzea, eta horretarako piztuko zaion bonbila hori izatea”.

Berarentzat Martxoaren 8ak zer esan nahi duen galdetu diogu. “Errekonozimendu egun baten gisara hartzen dut, emakume izateagatik harro sentitzeko eguna”. Greba deialdia batu zaio aurten Emakumeen Egunari. Gaia eragiten ari den eztabaida bera aberasgarritzat jotzen du Aintzane, gogorarazten duenez, “gizarte osoa ukitzen duen gaia da”.



Montse Gartzia: “Greba beharrezkoa? Noski baietz”

“XXI. mendean oraindik hain lako gauzak eskatzen ari al gara?”, gai honek gairitu egiten duela adierazi dio NOAUA!ri Montse Gartziak. Errealitatea ordea duguna dela argi izanik, martxoaren 8rako deitu den greba feministarekin bat egiten du Montsek, “grebarako motiboak badaude” eta.

“Gizonezko bat jubilatzen da baina emakumea inoiz ez”

Arrazoi ugari eta ezberdin aipatu dizkigu adibide gisa. “Boterean, enpresa handietan apenas dagoen emakumerik, ez da logikoa”, dio Montsek. Lana eta familia bateragarri egin ahal izatea ere hor dago. Etxeko lanetan, “lagunduko dizut entzuten duzu. Barkatu? Zure etxea ere bada, eta hala delako, etxean ere lan egin behar duzu”. Pentsioduna da Montse, jubilatua pentsio duinen alde mobilizatu diren egunean bildu ginen berarekin. Kolektibo horretan dauden ageriko desberdintasunak nabarmendu ditu. “Gizonezko bat jubilatzen da, baina emakumea inoiz ez”. Bizi osoan zehar, emakumeek errekonozitua ez dagoen lan mordera egin beharrean aurkitzen direla aipatzen du, urtetik urtera geroz eta lan gehiago egin beharrean gutxiago kobratuz, edota “soldata errekonozitu gabe”. Hau guztia ikusita, argi dio: “Greba beharrezkoa? Noski baietz!”.

“Sekulakoa iruditzen zait munduko biztanleria erdia gelditzea”

Tipi tapa, milaka herritarrek parte hartzen dute urtero emakumeen eskubideen aldeko Donostiako Lilatoian. Tartean hamarnaka usurbildarrek. Igande honetan, martxoaren 4an ospatuko den 29. ediziorako partaideen artean, 70etik gora herritar ikusiko ditugu Emakumeen Egunari lotutako lasterketan korrikan. Baita estreinakoz, partaide berriak ere; tartean, Aroa Etxeburua. Bi lagunekin batera izena eman du. Aspaldiko ilusioa bete duela adierazi dio NOAUA!ri. “Berezia da, emakumeena baita. Oso interesgarria iruditzen zait, sekulakoa, hainbeste emakume batera ikustea, emakumeak izatea protagonistak, lehenengoak helmugara iristen, eta lasterketa txalotzen



Aroa Etxeburua lehen aldiz hartuko du parte Lilatoian.

eta haurren orga eusten gizonetakoak egotea”.

Lilatoia, Martxoaren 8rako deitua dagoen greba feministaren bezperatan ospatuko da. Aroa erabat bat dator planto egiteko deialdiarekin. “Seku-

lako iruditzen zait munduko biztanleria erdia gelditzea. Azken urteetan nabari dut feminismoa indar hartzen ari dela, baina hau, ordago bat da”.

Greba egin nahi izan arren, emakume bat baino gehiago egin ezinean aurkituko da. Kasutan, gizonezkoen papera nabarmentzen du. “Emakume askok beraien greba egin dezaten, gizonek ere ardurak bere gain har ditzakete”.

Ezkutuan dauden errealitate guztiok ikustaraziko dira martxoaren 8an. Baliagarria izango dela iritzen dio, “konturatzea ze zailtasun dauden, eguneroko bizitzan zer eragin duen horrek guztiak”. Greba feministarekin bat egitera deitzen ditu emakumeak. “Denak animatzen ditut greba egitera”.

Badator 14. Soinurbil Musika Astea

Musikaz girotuko digu martxoan hamalau-garrenez, Zumarte Musika Eskolak eta Usurbilgo Udalak antolaturiko Soinurbil ekimenak. Ekitaldiak martxoaren 10etik 20ra ospatuko dira. Segidan duzue iragarri dituzten lehen hitzorduen berri, xehetasun gehiago astebete barru:

Lehen hitzorduak

Martxoak 10, larunbata

Haurren Eguna

■ 11:00 Lalala 0-3 tailerra-kontertua (I) Potxoenean.

■ 12:00 Lalala 0-3 tailerra-kontertua (II) Potxoenean.

Sarrera martxoaren 6a baino lehen jaso, Zumartek Puntapax 10ean duen bulegoan. Haur bakoitzarekin pertsona heldu bakarra bertaratu daiteke tailer



Martxoaren 10ean larunbata, Lalala tailerrak egingo dira Potxoenean. Argazkia, artxibokoa.

hauetara. Tailerrok perkusio nahiz kontrabaxuen soinuak ezagutaraztea dute helburu.

■ 17:30 "Rezikatork", 2-12 urte arteko haurrentzako ikuskizun pedagogiko-musikala frontoian. Birziklatzearen garrantziari buruzko emanaldi dibertigarri eta parte hartzailea, Zo-Zongo! Productions talde-

koen eskutik.

Martxoak 12, astelehena

18:00/19:00 Organo erakustaldia Salvatore Elizan.

Martxoak 14, asteazkena

18:30 Loatzo eta Zumarte musika eskoletako ikasleen emanaldia Sutegiko auditorioan.

Udal diru-laguntzak eskatzeko garaia da

Martxoaren 13ra arte zabalik izango da, Usurbilgo Udalak eginiko diru-laguntza deialdira eskabideak aurkezteko epea.

Guztira zazpi diru-laguntza lerro daude herritar eta eragileen eskura: deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko; igogailuak instalatzeko; gizarte zerbitzuen,

nekazaritza-abeltzaintza arloko, kultur eta kirol egitasmoak sustatzeko laguntzak.

Informazio gehiago: usurbil.eus / otsailaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

Turismo ereduari buruzko hausnarketa

Turismoari bultzada emateko sustatu beharreko ereduaz hausnarketa prozesua abiatu du Usurbilgo Udalak. Turis-

moari lotutako zerbitzuak eskaintzen dituzten eragileekin bilera deitua zuten asteazken honetarako. Ostegun honetan kultur eragile eta herritarrekin finkatu du hitzordua, 18:00etan Potxoenean. Etorkizuneko turismo ereduaren arloan eraiki nahi da prozesu honen bidez. Gai honi buruzko ekarpenak Udalak usurbil.eus atarian zintzilikatu duen galdetegi bat beteta ere egin daitezke.

Manex Torrealdei, Laiotz taldeko kide berria

Urte luzez Euskal Herriko hainbat plaza girotu dituen musika taldeak usurbildar bat fitxatu du. Ttipika Dantza Gidatuen taldeko kide ere baden Manex Torrealdei Laiotz musika taldean ikusiko dugu aurrerantzean.

Gaztelaniako literatura topaketa Sutegin

Martxoaren 7rako (asteazkena) antolatu du Sutegi udal liburutegiak 9. gaztelaniazko literatura-topaketa. Ana Merino usurbildarrak gidatuko du saioa. "Oraingo honetan irakurketa dialogikoa deitzen dena izango da, ez dago aurretik liburu bat irakurri beharrik", ohartarazi dute antolatzaileek, bertaratzeko gonbita luzatzearekin batera. "Anima zaitez, lagun giro ederra aurkituko duzu eta!".

Euskaraldia antolatzeko bilera

Usurbilek ere Euskaraldiarekin bat egin eta urte amaieran, gure hizkuntzaren erabilera suspertzeko 11 eguneko luzatuko den ekimena bideratzeko taldea osatua dago.

Martxoaren 14an

Hurrengo bilera irekia, martxoaren 14rako deitu dute, 18:00etan Potxoenean.

Artzi
Patriketa
Jatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu, 28 USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL



**Mondragon
Unibertsitatea**



**“ GURE
IKASLEEN
AHOTAN**

“Eredu dualean jasotako ezagutzak praktikan jartzeko aukera eman dit”

Irati Martikorena Puertas (Usurbil, 21 urte) Industria Antolakuntzako Ingeniaritza graduako azken urtea egiten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Zergatik aukeratu zenuen Industria Antolakuntzako Ingeniaritza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

Hasiera batetik argi izan nuen ingeniari bat ikasi nahi nuela eta, dauden guztietatik, Antolakuntzako aukeratu nuen. Izan ere, ingeniari industrialetako oinarritzko ezagutzak enpresa mundura bideratzen zaitu, ikuspegi global bat lortuz.

Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen, eskaintzen duen hezkuntza eredu ikasketako praktikoan oinarritzen delako, proiektuen eta talde lanen bitartez. Gainera, enpresekin duen harremanak mundu profesionala gertutik ezagutzeko aukera ematen du.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Oso gustura egon naiz nire ikasketak akademikoak burutzen. Hirugarren urtean, atzerrian ikasteko aukera izan nuen, Tecnológico de Monterrey unibertsitatean, Mexikon. Esperientzia oso aberasgarria izan zen, aspektu pertsonal zein profesionalean, esaterako, kultura anitzeko inguruetara egokitze gaitasuna lortu bainuen.



“Oso gustura nabil nire ikasketak akademikoak burutzen”, halaxe aitortu digu Irati Martikorena usurbildar gazteak.

IRATI MARTIKORENA

“Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen, eskaintzen duen hezkuntza eredu ikasketako praktikoan oinarritzen delako. Gainera, enpresekin duen harremanak mundu profesionala gertutik ezagutzeko aukera ematen du”

Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen

duen ikasteko metodologia? Metodologia berritzailea da, ebaluazio jarraitua dugu eta seihileko guztien amaieran proiektu bat egiten da, ikasitakoa praktikan jarritz. Proiektu hauen bitartez, arazo errealei aurre egiteko irtenbide posibleak aztertu eta eztabaidatzen dira, talde lana, sormena eta autonomia landuz.

“Praktikak Orona enpresan burutzen ari naiz”

Lanean ari zara ikasten duen bitartean, Dual eredu. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzun?

Azken urtean, Gradu Bukarako Lana eta honen praktikak Orona S.Coop. enpresan burutzen ari naiz. Proiektua biltegi layout berria diseinatzea da, bertako prozesuen arazoak konpontzea eta baloratzea, berriro agertzea eragotziko duten ekintzak planteatuz.

Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?

Goi Eskola Politeknikoan jasotako ezagutzak praktikan jartzeko aukera eman dit, logistika eta prozesuen kudeaketa edo hornitzaileekin harreman lan eremu errealean bizi ahal izan ditut.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Behin proiektua bukatzean eta gradua amaitzean, ikasten eta formatzen jarraitzeko asmoa daukat. Horregatik, Master bat ikasi nahi dut eta, ahal badut atzerrira joango naiz ikasketak hauek burutzera.

Euskarazko zineari eskainitako igandea

Sutegiko auditorioko eserleketan eroso asko jarrita, arratsalde pasa ederaz gozatzeko aukera izango da igande honetan, martxoaren 4an. Bi hitzordu izango ditugu; batetik, haurrei zuzendutako euskarazko zinea eta, segidan, Laburbira NOAUA! Kultur Elkartearen eskutik:

Ilunpetan (5'00")

“Ilunpetan, bere gelan, Leak neska batengan pentsatzen du. Neskak elkartu daitezten proposatzen dionean, Leak erabaki beharko du bere sentimenduak argitaratu ala ez”.

- Zuzendaria: Toldo Carranza.
- Aktoreak: Oksana Pohrebennyk, Natalia Viejo, Charlotte Gerard.

Night shift (15'16")

“Gaua heldu da Donostiako La Paz auzo txirora. 40 urte pasatxo dituen Meryk zigarroari azken zurrupadak eman dizkio, sorterrian -Hego Amerikan- utzi behar izan zituen seme-alabez oroitzuz. Garbitzaile aritzen da erdiguneko antzoki batean, gaueko txandan. Baina gaur sekula garbitu ez duen leku bakarrera sartuko da: aktorearen kamerinora...”.

- Gidoia eta Zuzendaritza: Izaskun Arandia.
- Aktoreak: Mery Enriqueta Vega eta Patricia Urrutia.

Higadurak (03'50")

“60 miloi urte, geologiaren li-



Erika Olaizola eta Mikel Iburguren dira ‘Zulo’ laburmetraiako protagonistak. Ezkerretara, Amancay Gaztañaga, zuzendarietako bat.

LABURBIRA 2018

**“Igande honetan,
19:30etik aurrera
Laburbirako 8 filmak
eskainiko dira Sutegin”**

buru handia. Higadura bakoitza, belaunaldien atal bat da. Arrokek isiltzen duten jakituria gure senideek abesten dute. Denok gogoratzen ditugu txikitako lo kantak...”.

- Zuzendaritza, gidoia eta muntaia: Oihane Zunzunegi eta Amaia Otaola.
- OFF ahotsak: Ane Rodriguez, Miren Madinabeitia, Josserra Ferreiro, Naia Etxebarria eta Matilde Perez.

Ejecutor (09'23")

“Zure txanda denean, ez dago ihes egiterik”.

- Zuzendaria: Javi Arriaga.
- Aktoreak: Iñaki Urrutia, Lander Otaola, Iñaki Maruri, Chema Trujillo eta Karmele Larrinaga.

Tazan (11')

“Ideia bat obsesio bihurtzen denean bizitzan eragin handia izan dezake hori erabat aldatu arte”.

- Uda films: Haizea Azpilikutak, Mikel Irazustak eta Unai Portillak osatzen dute oraingoan UDAfilms taldea.

Areka (6'35")

“Euxebik 80 urte ditu. Bere aita gerran desagertarazi zuten eta gertatutakoaren gaineko zurrumurruek entzunak bazituen ere ez du inoiz jakin non zegoen haren hilobia. Frankismoaren miseria eta errepresio guztiaren gainetik, Euxebik bizirik gorde du aitaren memoria, azkenik haren gorpuzkiak

aurkitu dituzten arte”.

- Gidoia/bertsola: Andoni Egaña.
- Zuzendaritza eta animazioa: Atxur animazio taldea (EHUko taldea).
- Ahotsa: Andoni Egaña.
- Soinua: Xabi Erkizia.
- Edizioa: Edu Elosegi.
- Produksioa: Patxi Azpillaga.
- Diseinu grafiko: Koldo Atxaga.

Kreba (11'00")

“Zaintzari buruzko hausnarketa proposatzen du Krebak. Hala, definizioz, Kreba hiru gauza izan daiteke: pitzadura edo arrakala, hernia edo etena, eta itsasoak kostaldera itzultzen dituen objektuak. Kontua da: zer egin pitzadura, eten edota objektu horiekin?”.

- Zuzendaria: Oier Fuentes.
- Aktoreak: Loli Astoreka, Iñigo Azpitarte, Oihana Maritorea, Mari Asun Pagoaga, Esther Uria, Peio Arnaez.

Zulo (14'01")

“Denok gara ezberdinak, denok ditugu beldurrak, ezintasunak, mugak... baina adorea? Denok al daukagu adorea? Istoria honetako bi protagonistek maite dute elkar eta maitasun hori elkarrekin bizitzea hautatu dute”.

- Zuzendaritza: Amancay Gaztañaga eta Erika Olaizola.
- Aktore nagusiak: Erika Olaizola eta Mikel Iburguren.

Igande arratsaldean, haurrentzako zinema Sutegin

Usurbilgo Udalak Ziortza Gazte Elkartearekin elkarlanean antolatutako euskarazko film proiektzioa haurrentzat igande arratsaldeko 17:00etan Sutegin. Sarrerak egunean bertan 3 eurotan salgai Sutegin. Honela dio ikusi ahalko den filmaren sinopsiak. “Barabooko gazte zalapartaria da Axel. Egun ba-

tean, Bontas basoak hiria salbatuko duenaren ametsaldia izango du eta Bontas basora bidaiatzea erabakiko du, Jono bere lagun lotsatiarekin batera. Iman Beltza Bailarako harri flotatzaileen bitartez egiten duen bidaiaren zehar arrisku handiekin egingo dute topo, baina lagunak ere egingo dituzte,

Pootron izeneko ostruka erraldoia esaterako, zeina bere lagun leiala bilakatuko den. Bere buruari benetako heroi bat dela erakusteko, ordea, Axelek Musker Erregeari egin beharko dio aurre. Musker Erregeak Bonta basoko landare guztiak bere menpe izatea eskatuko du Gaga printzesa askatzearen truke”.



“Axel, heroi txikia” izeneko filma eskainiko dute 17:00etan Sutegin.

Tapa eta aurkibidea K prest

Agur esan diogu 2017 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2017ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditzaitezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

2017



683-723 zenbakiak

BAZKIDEEN TXOKOA



Martxoaren 9an ZOZKETATUKO dugu:

SAIZAR
SAGARDOTEGIAN

2 LAGUNENTZAKO
afaria

NOAUAREKIN
TXOTXI!

noaua! euskararen aterpe

Duintasunez bizi ahal izateko borrokan

Guztiantzako etorkizun hobeago baten alde protesta egitera irten ziren otsailaren 22an pentsiodunak. Duten ezinegon, haserre eta kezka plazaratzera, Hego Euskal Herriko hiriburu guztietan herri-tarrok biltzen dituzten elkarteek deitutako manifestazioetara. Donostiakoan, gainerakoetan beza-la jendetza batu zen.

Hainbat herritar ikusi genituen, Espainiako Gobernuak planteatutako pentsioen %0,25eko igoerari ezezko borobila ematen. Amara Plaza hotel paretik abiatu zen mobilizazioa, Espainiako Gobernuak handik gertu duen ordezkartzara. Bertan aurkeztu zituzten, dituzten eskaera guztiak. Eta elkarretaratzea egin zuten. Etengabeok izan ziren ustelkariaren nahiz murrizketen aurkako aldarriak. Pentsio duinak eskatzen dituzte, Europako Karta Sozialak zehaztua duen gutxienekoa jaso ahal izatea; 1.080 euro. Galdutako eros ahalmena berreskuratzea, KPI-aren arabera gaurkotzea, eta Euskal Herrirako pentsio sistema publiko eta propioa. Martxorako mobilizazio gehiago iragarri dituzte.

“%0,25a igotzea, miseria hutsa”
Donostian egin zuten manifestaziora usurbildar mordo



Otsailaren 22an Donostian egin zen manifestazioan usurbildar ugari batu ziren.

MARIA JESUS OLANO

“Pentsioa azken bost urteotan ez dute batere igo, eta erosteko ahalmena galtzen ari gara urtez urte”

joan zen, orain arte isildua izan duten haserrearen ozen adieraztera. “Pentsioa azken 5 urteotan ez dute batere igo, eta erosteko ahalmena galtzen

ari gara urtez urte. %0,25a igotzea proposatzen dute orain, miseria hutsa da. Bizimoduak garestitzen segitzen baitu. Azkenean ezin bizirik geratuko gara”, adierazi zion NOAUA!ri Maria Jesus Olano usurbildarrak.

Planto egitea erabaki zuten, “ia baten bat lotsarazten den” zioen Olanok. Diotenez, horrela ezin baitute jarraitu. “Geroz eta heldu jende gehiago ari da bizi ezinik geratzen eta zerbait egin beharra dugu, ezin dugu

hala jarraitu”, Patxi Lizasoren esanetan.

Baztertuak sentitzen direla dio Itziar Izagirrek. “Jubilatuak pixka bat gehiago begira diezagutela. Gobernutik hasita, gu baztertuak gaude, oso baztertuak. Beste gauza batzuk gure beharrak betearaztea baino lehenetsi handiagoa dute. Ia zerbait egiten duten. Hala ez dugu segitzetik. Mobilizatzea lehen gazteen gauza izaten zen, orain gu ere aldarrikatu beharrean ikusi gara”.



“Geroz eta heldu jende gehiago ari da bizi ezinik geratzen eta ezin dugu hala jarraitu”, Patxi Lizasoren adierazpena Donostiako manifestazioan.

“Hau konpontzeko zerbait egin beharra dugu”

Hitzartua dagoena be-
tearaztea baino ez dute
eskatzen. “Hainbeste
urtez kotizatutako pertsonak
gaude hemen, bizitzeko duin-
tasuna behar dugu. Non dago
pertsonaren duintasuna? Ez
dugu eskatzen beste munduko
gauzarik, bizitzeko behar dugu-
na”, zioen Maria Angeles Arru-
tik.

Donostian bildutako jende-
tzarekin harrিতua zegoen Arruti.
“Honek esan nahi du jendea
jada aspertu dela isilik egoteaz.
Mugitzen ez bagara, ez dugu
ezer lortuko. Ia zerbait lortzen
dugun, hori da gure helburua”,
Maria Angelesen hitzetan.

Herritarroei betearaztea eska-
tzen zaiguna, arduradun poli-
tikoek ere dagokiena egitea eska-
tzen diete. “PPren gobernua
besteei araudiak betearazteko
prest dago beti, ia berak noiz



Maria Angeles Arrutiren esanetan, “jendea aspertu egin da isilik egoteaz. Mugitzen ez bagara, ez dugu ezer lortuko”.

betetzen dituen bereak”, zioen
Lizasok. Adostu eta onartua
dutena betearaztea eskatzen da-
biltza.

Aurreko astekoa, abiapun-
tua izan eta mobilizatzen segi-
ko dutela iragarri digute. “XXI.
mendera heldu garen arren,

Udarregi Ikastolaren 50. urtemugako abestia grabatzeko entsegua

Ikastolak aurten beteko duen
mende erdia dela eta, abes-
tia sortu eta grabatzera doaz,
martxoaren erdialdean. Ent-
seatzen hasiak dira. Aurreko
larunbatean egin zuten lehen
proba. Ostiral honetarako
deitu dute hurrengo entsegu
saioa. Bi aste barru izango da
grabazioa. “Ikastolako guraso,
guraso ohi, aiton-amonak kan-

ta batean zuen ahotsa, zuen
parte hartzea, betirako hor
gera dadin, gonbita luzatzen
dizuegu”, adierazi digute Uda-
rregi Ikastolatik. Abestia erraz,
10 minutuetan ikasteko mo-
dukua dela ohartarazten dute.
“Ahotsaren kalitatea baino
garrantzitsuagoa da parte har-
tzearen nahia, onartu duzuen
hori eta ez geratu atzean, zuen

bizitzako grabaketa honetan”,
luzatzen du gonbita, Udarre-
gi Ikastolako musika irakasle
Jaione Eskuderok. Adi beraz
deialdi hauei:

■ Martxoak 2, ostirala, 16:30
Entsegu saioa, Udarregi Ika-
stolaren Agerialde eraikineko
musika gelan.

■ Martxoak 13-16: grabake-
tak.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Milaka herritar batu ziren Donostian, erraustegia geratzeko eskatzera

Errausketaren aurkako eta osasunaren aldeko milaka herritarren ahotsen oihartzunak Donostia erdigunea inguratu zuten, Errausketaren Aurkako Mugimenduak deituta, otsailaren 24an egin zuten manifestazioan. Erraustegia geratu eta birziklapena sustatu beharra dagoela argi utzi zuten.

Antolatzaileen, OEIT-ren edota Landaberri Ikastolako kideen agerraldiek borobildu zuten mobilizazio jendetsua, bertso-lariek eta talo janak girotu zuten Bulebarreko ekitaldian.

“Ainhoa eta Iñaki, zuekin gaude”

Aurreratu egin dute Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko lehendakari ohi Ainhoa Intxaurrendieta eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen diputatu ohi Iñaki Errazkinen aurkako epaiketa. 2013ko azaroan erraustegia geratzeagatik epaituko dituzte apirilaren 12an.

Donostiako manifestazio amaieran, babesa eta elkartasuna helarazi zitzaizen bie txalo artean. “Iñaki eta Ainhoa, zuekin gaude!”, adierazi zieten.

Biztanle gehien dituzten udalerriek deialdia

Ekitaldi berean, Zubietako erraustegia berehala geratzea eskatu zuten, “merkeagoa, osasuntsuagoa eta ingurumenean eragin gutxiago duen alternatibarik badagoelako”. Gipuzkoako hainbat udalerrikerakutsi bezala, %80ko birziklatze tasara heltzea posible dela gogorarazten dute eta honenbestez, erraustegiaren beharrik ez dela, “beste irtenbide bat bilatzea posible izango genuke”. Horretarako ordea, biztanle gehien dituzten Gipuzkoako hiri eta herri guzuetan bide honetara batu eta Aldundiak



Errausketaren Aurkako Mugimenduak antolatu zuen aurreko larunbateko manifestazioa. Argazki gehiago, noaua.eus/argazkitegia atalean.

ERRAUSKETAREN AURKAKO MUGIMENDUA
Erabakigarritzat jotzen du Europako Parlamentuak erraustegiei diruz laguntzeari uzteko urtarrilaren 17an hartutako erabakia

beharrezko baliabideak jartzea galdegin zuten.

Erabakigarritzat jo zuten bestalde, Europako Parlamentuak erraustegiei diruz laguntzeari uzteko urtarrilaren 17an hartutako erabakia.

OEIT: “Errauskailuak osasunarentzat arriskutsuak dira”

2004tik egin duten moduan, Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak (OEIT) osasuna lehenestea eskatu zien ordezkariei politikoei. “Berritoki eskatzen diegu politikariei beren lehentasunak berraztertze eta aurreneko lekuan hiritarren osasuna ezartzeko, irizpide politiko eta ekonomikoen gainetik. Osasuna baita hiritarroei gehien axola diguna”, zioen OEIT-ko kide batek, Donostiako manifestazio amaieran.

Bizkaiko Zabalgarbi jarri zuen adibide gisa. “Baieztatu da bertako landaretzan, artsenikoaren maila igo egin dela, erraustegia martxan jarri zenetik”. Arsenikoaren jatorria zehazteko beharra helarazi die OEIT-ki ingurumen sailari, baina “erantzunaren esperoan gaude”. Bestalde, 10 urte igaro arren, 2015ean egitekoak ziren ikerketa epidemiologikoa egiteke dute oraindik Zabalgarbin, OEIT-ki adierazi zuenez.

“Gure eta gure haurren osasuna defendatzearen ardura zuei dagokizue ere”

Urteak daramatzate, ikastolatik 500 metrora eraiki nahi dieten erraustegiak hezitzaile eta haurrengan izan dezakeen eraginarekiko kezka plazaratu eta argibideak eskatzen. Lasarteko Landaberri Ikastolako irakasleei buruz ari gara. Donostiako manifestazio amaieran hartu zuten hitza. Dakizuen, Hezkuntza Ordezkaritzari hainbat gutun helarazi dizkiete azken bi urteotan. Urte amaieran jaso zuten erantzuna; ikastetxe atarian erraustegiarekiko kezka adierazten zuten pankartak kentzeko agindua jaso zuten

Landaberri. Nobedaderik izan dute ordea, azken aldia. “Hiru gutun bidali dizkiegu eta hara, hirugarren honetan Gema Gonzalez de Txabarri hezkuntza lurralde ordezkariek erantzun digu. Ordezkaritza honetako ekimen eremuak gaituzten du. Zure erantzuna ez zaigu onargarria iruditzen”, adierazi zuten.

Galdera argia luzatu zioten Hezkuntza Ordezkaritari. “Ez al zaizu iruditzen, hezkuntza buru zaren heinean, langileon eta ikaslearen osasuna zaindu beharko zenukeela?”. Eremu kutsatu batean ikastola bat egotea onargarria ote den ere galdetzen zuten. Pankartak kentzea agindu ordez, “ez al luke hobe guk adierazitako galderari erantzun bat ematea?”. Argi dute erantzuna Landaberri ikastolakoek. “Gure lan eremuan, gure eta gure haurren osasuna defendatzearen ardura zuei dagokizue ere”.

Erraustegia ez dator bat inola ere, irakasten ari direnarekin. Agenda 21 proiektuaren baitan, “zaborraren murrizketa eta berrerabilpena bultzatzen duten kultura irakasten saiatzen gara”.

Hitza hartu eta adosten hasteko garaia

Gutxieneko finantzia-zioa eskuratuta (10.000 euro behar zituzten eta 17.000 euro bildu dituzte), gipuzkoarren txanda da orain; hitza hartu eta adosten hastekoa. Abiatzera doa, abenduan Donostiako Eureka Zientzia Museoan lehenik, eta azken asteotan, herriz herri aurkeztu aritu diren Hitzartu prozesua; ostiralean, martxoaren 2an izango da. Hurrengo asteotan, hitzaldi eta eztabaida publiko ugari antolatuko dira, antolatzaileen esanetan, “parte hartzea erreala izan dadin informazioa eta eztabaida bermatu behar dira” eta.

“Hiritarren epaimahaia”

Gipuzkoarren parte hartze prozesua berriz apirilean abiatuko dute. Horretarako bi teknika berritzaile baliatzeak dira; “Hiritarren Epaimahaia” eta “Gune Irekiak”. Hiritarren Epaimahaiaren kasuan, “irizpide demoskopikoekin, zozketaren bitartez hiritarrak hautatzen dira tailerretan parte hartzeko”.



Hitzartu prozesuaren abiatzea iragartzeko, GuraSOS taldeak eta LAB zein CCOO-Euskadi sindikatuek prentsaurrekoa eskaini zuten asteartean Donostian.

HITZARTU

“Parte hartzea erreala izan dadin informazioa eta eztabaida bermatu behar dira”

Hiri hondakinen kudeaketarako plana idazteko irizpideak erabaki beharko dituzte, iritzi ezberdinetako adituen laguntzaz.

“Gune Irekiak”

Gune Irekiak teknikaren bidez bestalde, hainbat sektore, herri eta eskualdeetan parte hartze dinamikak antolatuko dituzte.

Parte hartze prozesuko ekarpenekin erredaktatuko da udazkenean, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plana. Hiru baldintza nagusi bete beharko ditu, Hitzarturen sustatzaileen esanetan: gizar-

te kohesioa, adostasun gehien duen proposamena aurkitzea; osasuna eta ingurumena gehien babesten duen irtenbidea izatea; eta Europako irizpideak betetzen dituen konponbidea izatea.

Diru premian

17.000 euro bilduak dituzte jada baina Hitzarturi lotutako ekimen guztiak finantzatu ahal izateko, prozesua amaitzerako 80.000 eurotara heldu nahi dute. Honenbestez, orain arte jasotakoa “ez da nahikoa; Hitzartukide gehiago beharrezkoak dira. Azpimarratu nahi dugu gure asmoetarako Hitzartukideak lortzea dela eta dirua ezinbesteko baliabide bat, besterik ez”.

Alegia, prozesu honetara ahalik eta eragile eta herritar gehien erakarri nahi dituzte. 5 eurotik gorako ekarpenak kontu zenbakiotatik egin daitezke: Laboral Kutxa:

ES05 3035 0140 33 1400031124

Kutxabank:

ES83 2095 5060 10 9117692165

Datozen deialdiak

Martxoak 2, ostirala

■ 18:00 CSICeko bi zientzialariek (Eduardo Rodríguez Farrék eta Fernando Palacios) landu duten Zubietako erraustegiari buruzko txosten zientifikoaren aurkezpena Gipuzkoako Medikuen Elkargoko aretoan (Frantzia pasealekua, 12, Renferen geltoki ondoan).

Ondoren, errausketa eta osasunari buruzko eztabaida, Biodonostiako ikerlari bat eta osasun publikoaren zuzendaritzako ordezkari batekin.

Martxoak 3, larunbata

■ Goizean, Eduardo Rodríguez Farré eta Fernando Palacios

txostenaren egilearen gosaria hedabideekin. Elkarrizketak emango dituzte.

Martxoak 5, astelehena

■ 19:00 Hitzartu prozesua aurkeztuko dute Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean, Berme Batzordeko kide Garbiñe Biurrunek eta Esther Larrañagak.

Martxoak 9, ostirala

■ 19:00 Ibaetako EHUko Carlos Santamaría Auditorioan, “Demokrazia: Adostasun zabalak beharrezkoak direnean, Hiritar arduratsua edo alienatua (delegazioa), nola sendotu gure demokrazia,

nola sendatu gizartea gaiari buruzko elkarrizketa”. Parte hartzaileak: Arantza Campos (EHUko Irakaslea Parekidetasunean aditua), Juanjo Alvarez (EHUko zuzenbide katedraduna), Braulio Gómez (“Deusto barómetro”-ko arduraduna) eta Jon Sarasua (Mondragon Unibertsitateko irakaslea).

Apirila-ekaina

■ Hiritarren parte hartze prozesua.

Iraila-abendua

■ 2017-2030 urte arterako Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Planaren idazketa,

zereginotarako osatuko den Mahai Tekniko eta Sozialaren eskutik.

Abendua

■ Hitzartu prozesuaren amaiera eta planaren aurkezpena. Hirugarren parte hartze saioak.

■ Prozesu honen emaitza Gipuzkoako Batzar Nagusien esku uztea. Hortik aurrera, ordezkari politikoen txanda izango da.

Informazio gehiago:

hitzartu.eus

hitzartu@hitzartu.eus

Twitter: @Hitzartukide

Facebook: Hitzartukide

PETRITEGI ETA LIZEAGAKO SAGARDOA!

Iguarte
SAGARDOTEGIA

MARTXOAREN 3AN, AFARI-KONTZERTUA
NEW STRAITS TALDEARIN 22:30etatik aurrera

ZATOZI!

URBIL gune komertzialaren ondoan
URTE OSOAN ZABALIK

- Eguneko menua ·Kaxuelitak ·Sagardotegiko menua
- Kuadrilenzako menuak, prezio egokitan

iguartesagardotegia@gmail.com. Tel.: 658 435 160 Asteasuain poligonoa. USURBIL

Laburbira

Euskarazko film laburren zirkuitua

Martxoak 4, Igandea
Sutegiko auditorioan, 19:30
DOAN

Herriz-herriz ibiltari, euskarazko film labur berriak zaleei erakutsiz. Halaxe dihardu Laburbirak, 15 urtez, mugimenduan: gure lurrotan zein Euskal Herritik kanpo, euskarazko zinegintzan sortzen ari diren dosi txikiak zabalduz. Aurten ere lan asko jaso ditugu eta haietatik zortzi aukeratu ditugu. Zaleentzat entretenigarria izango den 77 minutuko emanaldia osatuz. Euskarazko zineaz gozatzeko, otsailaren 26tik martxoaren 28ra bitarte, Laburbira zirkuitua herriz-herriz!

ILUNPETAN
Koldo Cantabria
NIGHT SHIFT
Ikerbaso, Aitor
TAZAN
Aia Soria
AREKA
Aitor Gallo
HIGADURAK
Aneke Elizalde eta Ikerbaso, Aitor
EJECUTOR
Javi Artalea
KREBA
Oier Pamies
ZULO
Aitor Gallo eta Ikerbaso, Aitor

“Indarkeria matxistarik gabeko Usurbil nahi dugu”

Inoiz ikusi gabeko jendetza bildu zen astelehen iluntzean Mikel Laboa plazan egin zuten elkarretaratze isilean. Isiltasunean ozenki agertu zen Usurbilgo herria, indarkeria sexistaren aurka. Belaunaldi guztietako herritarrek batu zituen hitzorduak. Ostiralean izandako eraso sexista salatu zuten guztiek, indarkeria sexistaren aurkako pankartaren bueltan. Eta modu honetan, babes osoa adierazi nahi izan zitzaion otsailaren 23an bikote ohiak erasotu zuen emakumeari. Ehunka herritarrekin batera, udal eta Foru Aldundiko ordezkariak batu zituen mobilizazioak.

Gogoan izan, Ertzaintzak 43 urteko gizonezko bat atxilotu zuen otsailaren 23an Usurbilen, bikotekide ohiari sexu



Elkarretaratzeko pankartari eusten, erasotua senideak eta udaletxean ordezkatuta dauden hiru alderdietako ordezkariak batu ziren. Foru Aldundiko ordezkariak eta herritar ugari bertaratu ziren Udalak egin zuen deialdira.

erasoa egitea egotzita. Erasoa banantze prozesu betean den bikotearen etxean jazo zen, ostiral goizeko 11:00ak aldera. Gizonezkoak emakumea in-mobilizatu eta erasotzen ahal-egindu zen, Ertzaintzak berri eman zuenez, baina, gertatu-

takoaren lekuko zuzena izan zen hirugarren pertsona batek geldiarazi zuen.

Hernaniko ertzain etxeko talde bat bertaratu eta gizonezkoa atxilotu zuten. Emakumea Donostia ospitalera eraman zuten, zauriak

artatzera. Gizonezkoa epilearen esku utzi zuten biharamunean, otsailaren 24an.

Azken eraso sexista ozen salatu du eta irmoki gaitzetsi dute Usurbilgo Udalak, baita Gipuzkoako Foru Aldundiak ere.

Adierazpena: Indarkeria sexistarik ez!

Berri lazgarri batek astindu du gure herria asteburu honetan: gizon batek bikotekide ohiari eraso egin dio eta bere nahierara erabili.

Usurbilgo Udalak badu indarkeria sexistetarako protokoloa, eta, erasoaren berri izan bezain pronto, protokoloa zorrotz aplikatu genuen, pertsona erasotua ahalik eta ondoen artatzeko, eta bere intimitatea eta borondatea hasiera-hasieratik errespetatuz. Udalak hasieratik azaldu dio emakumeari babes osoa, eta gaur ere, plaza publikoan, horixe bera azaldu nahi diogu: gure elkartasuna.

Nolanahi ere, babesaz gain, eraso ozen salatu nahi dugu plaza publikoan. Izan ere, argi dugu emakume bat erasotua, iraindua, jazarria den bakoitzean, jendartea bere osotasunean dela erasotua. Horregatik, erasorik ez, erantzunik gabe!

Eraso honek garbi erakusten du indarkeria eta eraso sexistak ez direla gertaera isolatu edo salbuespen gisa ulertu behar. Erasoa hauek ez dira erasotzen berroaldia. Emakumeon aurkako erasoak eta jazarpenak giza eskubideen urratze larriak dira, bai eta gizonen eta emakumeon arteko desberdintasun sozialen adierazpiderik bortitzena ere. Beraz, egiturazko arazo bat da, pertsonen beren generoaren arabera dituzten botere-egoerei zuzenki lotutakoa. Gizonezkoek gizartean eta imaginario kolektiboan duten posizio nagusiaren abusu bat da indarkeria, eta, neurri horretan, emakumezkoen diskriminazioa iraunarazteko adierazpen eta tresna ere bada aldi berean.

Eta arazoa estrukturala den neurrian, erroei, sustraei, heldu behar zaie, ezinbestean. Derrigorrean behar eta martxan jarri behar dira politika feminista transbertsalak. Premiazkoa da,

halaber, indarkeria matxistaren kontrako lege integrala.

Gure ustez, indarkeriaren prebentzioan egin behar da bereziki ahalegina, eta neska-mutilak, emakumeak eta gizonak, askatasunean eta berdintasunean hezikiko dituen hezkuntza sustatu behar da.

Baina, aldi berean, ezinbestekoa da emakumeen boteretzea eta herritarren arteko babes-sareak sustatzeko neurriak martxan jartzea, emakumeak biktima gisa tratatu ordez soilik. Zentzu horretan, autodefentsa feministan sakontzen jarraituko dugu udaletik. Izan ere, argi dugu emakumeok geure ekin-tzen eta gorputzen jabe izan behar dugula eta indarkeria egoerei aurre egin eta egoera horiek ondo kudeatzen jakin behar dugula. Dena den, emakumeen eta herritarren arteko babes-sareak sortzea ere garrantzitsua da, bakardade sententzioari eta babesgabatasun egoerei aurre

egiteko.

Guztion ardura da, beraz, eraso bakar bat gehiago izan ez dadin jarrera aktiboa izatea.

Guztion ardura da berriz halakorik gerta ez dadin prebentzioa lantzea, eta jarrera aktiboak izatea parekidetasunaren alde, bazterketaren aurka, sexismoaren aurka, edozein delarik ere bere adierazpidea: bai erakunde publikoetako ordezkariok, hezkuntza-eragileek, komunikabideek, lan-esparruko eragileek, kultura-eragileek, ekonomia-eragileek, edota gutako bakoitzak, izan familian edota lagunartean.

Indarkeria matxistarik gabeko Usurbil nahi dugu. Emakumeok libre eta beldurrik gabe bizi nahi dugu!

Indarkeria sexistarik ez! Ez hemen ez inon!

* Otsailaren 26an astelehena, Usurbilgo elkarretaratzean irakurritako adierazpena.

Ainhoa Intxaurrendieta: “Ondo egin genuen

2013ko azaroan erraustegia geratzeagatik apirilaren 12an epaituko dituzte garai hartako Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko lehendakari Ainhoa Intxaurrendieta eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen diputatu Iñaki Errazkin. Testuinguru honetan, kasu benetan larritzat jotzen dutena ezagutzera eman, jokoan dagoenaz ohartarazi eta epaituak izango direnei babes adierazteko “Angula ustelak” elkartasun eta hitzaldi bira antolatu du Gipuzkoa Zutik mugimenduak herriz herri. Usurbilgo hitzaldia, martxoaren 7an izango da, 19:00etan Sutegin. Hitzaldia- ren bezperatan, Ainhoa Intxaurrendieta elkarrizketatu dugu.

NOAUA! Martxoaren 7ko hitzaldian erraustegiak irudikatzen eta atzean ezkututzen duen horretaz guztiaz ariko zarela esan daiteke?

Ainhoa Intxaurrendieta: Bai, hori da. Erraustegia ez da hondakinak tratatzeko azpiegitura soil bat, erraustegiaren atzetik negozio borobila dago eta hori da nik mahai gainean jarri nahi dudana. Lege eta arau haustek agerian utzi nahi ditut.

“Angula ustelak” izenburuak, solasaldian ustelkeria sarritan aipatuko den hitza dela iradoki nahi du?

Angula ustelak izenburuarekin, aurreko erraustegiko pasarte “ilun” edo behintzat ez oso txukuna gogora ekarri nahi izan dugu. Gipuzkoarroi, milioika eurotako galerak ekarri dizkigun SWAP famatuak sinatu ondoren, nola diru publikoaz, banketxeetako ordezkariak gonbidatu zituzten angulak jatera hain zuzen ere. Horrelako kalteak dakarkigun produktu toxiko bat sinatu eta gainera diru publikoaz ospatzea angulak jaten, hamarkadetan gauzak egin diren inpu-



“Angula ustelak” elkartasun eta hitzaldi bira antolatu du Gipuzkoa Zutik mugimenduak. Ainhoa Intxaurrendieta Sutegin arituko da hizketan, martxoaren 7an, 19:00etan Sutegin.

AINHOA INTXAURRENDIETA

“Erraustegiaren atzetik negozio borobila dago eta hori da nik mahai gainean jarri nahi dudana. Lege eta arau haustek agerian utzi nahi ditut”

nitatea besterik ez du agerian jartzen.

Milaka gipuzkoarrek hamarkada luzez eskatutakoa betetzeagatik, erraustegia geratzeagatik epaituak izango zarete zu eta Iñaki Errazkin apirilaren 12an. Erraustegia geratu zuen GHK-ren, Aldundiaren eta enpresa eraikitzaileen 2013ko

azaroko erabaki eta akordio historiko hartatik ezer aldatu zenuke orain?

Ez. Ez nuke ezertxo ere aldatu. Azpiegitura kutsakorrek eta osasunarentzat kaltegarriak direnean, tentu haundiz ibili behar da haiekin, baina gainera kasu honetan, erraustegia eraikitzen hasi aurretik, ekonomikoki defizitarioa izango zela ere bagenekien. Eta ez guk bakarrik. Enpresekin kontratua sinatu baino urtebete lehenago, erraustegia gaindimentsionatua zegoela bazekiten kontratua sinatu zuten politikariek. Uste dut ardura kontua dela. Diru publikoarekin arduraz jokatu behar da eta ezin daitezke orain arte egin diren

astakeriak egin. Ezin daitezke horrelako azpiegitura bat eraiki, defizitarioa bada eraikitzen hasi aurretik.

Juridikoki gainera, gauzak primeran egin genituen, berme juridiko guztiak genituen kontratua apurtzeko eta hori egin genuen. Auzia erabat politikoa da. EAJ-PSE osatzen duten GHKk, Madrileko Kontu Epaitegira bideratu du gure salaketa. Han, Margarita Mariscal de Gante, Aznar Presidente zeneko Justizia ministroa dugu gure kausaren instruktorea. EAJ- PSE- PP koalizioa dugu jokoan beraz, eta beste muturrean EHBilduko bi ordezkari. Oraindik sinetsi dezakegu auzia juridikoa dela?

“Oso babestua sentitzen naiz”

NOAUA! Herriz herri eskaintzen ari zareten hitzaldi ziklo hau, elkartasun bira ere bada. Zer moduz zaudete? Babestuak sentitzen ari zarete epaiketa honen atarian?

Ainhoa Intxaurrendieta: Bai, ni oso babestua sentitzen naiz. Ondo egin genuen eta herri-tarrek badakite hori. Ikuste-

koa da hitzaldietan jendeak zer nolako babes adierazten digun. Gazte ugari dator hitzaldietara eta gertatutakoaz jabetzean, laguntzeko prest daudela adierazten dute. Ni indartsu nago. Oraindik ikusteko dago zer gertatuko den. Hala ere, ez da erraza etorkizuna irudikatzea horrelako

zama bat aurrean duzunean, baina oso pertsona baikorra naiz eta gerta daitezkeen okerrera gertatuta ere, aurrera egingo dugu eta kitto. Gauzak ondo egin zirenaren konbentzimendua dugu eta horrek harrotzen gaitu. Madrileko PPko epaile batek ez du hau aldatuko.

eta herritarrek badakite hori”

NOAUA! Epaiketarekin zure ustez ze mezu helarazi nahi zaigu herritarroi?

Ainhua Intxaurrendieta: Hori da honetan guztian kezkarriena. Guri gerta dakigukena baino, hemendik aurrera zer gerta daitekeen iruditzen zait beldurgarriena. Mezu bat helarazi nahi digute herritarroi: Gure negozioak ez ukitu. Lobby/ enpresa/ elite ekonomikoak daude horrelako azpiegituren atzetik eta hori da eman nahi diguten mezua, haientzat “estrategikoak” diren azpiegiturak ezin direla ukitu. Salaketa honekin, ukitu ezin bilakatu nahi dituzte aurrerantzean. Politika egiteko beste modu batzuk badaude, diru publikoa tentuz kudeatzeko agindua aintzat hartzen dutenak eta horrek elite ekonomikoak etekin milioidunak izatearekin kontrajarria dago. “Estrategikoak” diren azpiegiturak, AHT, Metro donostialdea, Lezoko Intermodala,... guztiak dira elite horrentzako “estrategikoak”. Argi dagoen gauza bakarra da, diru publikoa poltsiko pribatuetara bideratzeko estrategia jarraitzen duten azpiegiturak direla. Berdin dio, ondorioz, ingurumena edo/eta osasuna kaltetzea. Helburu bakarra, multinazional hauek urte amaieran, urtero urtero, etekinak haunditzea da gu guztion kontura.



Ainhua Intxaurrendieta GHK partzuergoko presidentea izan zen. 2013ko uztaillean, erraustegiaren gelditzea iragarri zuten. Ordukoa da argazkia.

AINHOA INTXAURRENDIETA **“Benetako arazoa zein den eztabaidatu ordez, beraien mesede diren eztabaidetara eraman nahi dute”**

Proiektu horiek dira hain zuzen ere, ukitu ezin bilakatu nahi dituztenak. Herritarron eskuak lotu nahi dizkigute. Negozioak ez ukitu, esan nahi digute. Kezkagarria benetan!

Zuen aurkako epaiketa, erraustegiko lanen azken txanpa, 2019ko hauteskundeak... Argi denez, hilabete mugituak dartzkigu. Asko dugu jokoan ezta?

Bai noski. Azken txanpa honetan azeleragailua sakatu dute. Argi dago, oraingo honetan ere,

aurrekoan bezala, erraustegiarekin ez direla gauzak behar bezala egiten ari. Legea urratuz edo saihestuz egiten ari dira kontratazioak, obrak etab. eta aurreko legealdian bezala, eztabaida beste gune batetara eraman nahi dute. Hau ezkututzen dute beste mota bateko albisteak sortuz. Gure kontrako salaketa, gu epaitegietara sartzen,... azkenean, benetako arazoa zein den eztabaidatu ordez, beraien mesede diren eztabaidetara eraman nahi dute. Argi izan behar dugu hori eta eztabaida, behar den terminoetan kokatu behar dugu. Hasteko, herri gehienek Gipuzkoan argi utzi dute, ondo egin daitezkeela gauzak nahi izanez gero. Zergatik ordea, gaizki egin eta mila milioi eurotik gorako azpiegitura bat eraiki?

“Erabakiak herritarron esku utzi behar dira”

NOAUA! Erraustegia geratzea lortu zen 2013ko azaroan. Milaka gipuzkoarren eskakizunei kasu eginez, berriz geratu daitezkeela uste duzu?

Ainhua Intxaurrendieta: Herritarrek nahi badute bai. Erabakiak herritarron esku utzi behar dira. Horretarako herritarrak enpoderatu egin behar gara, horrela, gure etorkizuna, ingurumena, osasuna, ekonomia,.. guk erabakitako moduan gauza ditzake-

gu. Honetan ere erabakitzeke eskubidea gauzatu behar da.

Besterik aipatu nahi zenuke?

Bai, batetik, gauzak beste modu batetara egin daitezkeela sinesten dugunok, guztiok, bakoitzak bere neurrian, norabide horretan pausuak eman behar ditugula esan nahi dut. Batzuk txingurri pausuak eman go ditugu, beste batzuk pauso haundiagoak, baina guztion

lanarekin, gure etorkizunerako garrantzitsuak izango diren erabakiak gure esku izatea lortu behar dugu. Gure poltsikoak, ingurumena eta osasuna ez ditugu enpresen etekinen esku utzi behar. Guztion lanarekin egin daitezkeela erakutsi genuen, beraz, guztion lanarekin, egingarria da. Egin dezagun bada! Bestetik, eta oso garrantzitsua ere, elkartasun mezuak esker-tzea. Mila mila esker guztioi!

GHK-ren 2018ko tarifei errekurtsioa

Gipuzkoako Hondakin-en Kontsortzioak (GHK) 2018rako tarifak auzibidean errekurritu edo ez erabakitzekeoa zen Usurbilgo Udaleko udalbatza, astearte honetan egitekoa zuten osoko bilkuran. Informazio gehiago, hurrengo astekarrian.

Martxoaren 20an, mobilizazioak eta solasaldiak

Errausketaren Aurkako Mugimenduak, oraingoan sindikatu eta plataforma ezberdinekin hitzaldi eta mobilizazio eguna antolatu dute martxoaren 20rako Donostian: sindikatuen mahai ingurua, bi giza-kate Foru Aldundiaren egoitza inguruan, “Angula ustelak” hitzaldia edota Piotr Barczak Europako Ingurumen bulegoko hondakin arduradun teknikoaren agerraldia unibertsitatean. Xehetasun gehiago, hurrengo astekarrian.

6.100 lagun eztabaida eske

Erraustegiaren inguruko eztabaida telebista bidez ematea eskatzeko sinadurak biltzen jarraitzen du Andoaingo Ipar Haizea plataformak. Jada 6.100 lagunengana babesa dute, erraustegiaren alde eta aurkako adituen posizionamenduak islatuko dituen eztabaida teknikoaren alde.

change.org atarian

Deialdi honekin bat egiteko sartu change.org atarian. “ETB gurea da! Denona da! Lagundu mezua zabaltzen eta sinadurak lortzen!”, deitu zuen Errausketaren Aurkako Mugimenduak, larunbateko Donostiako manifestazio amaieran.

Azken ostiraleko elkarretaratzea

Aurreko astean zendutako euskal presoen bi senide ekarri zituzten gogora, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta, otsailaren 23an Mikel Laboa plazan egin zuten elkarretaratzean. “Biei dispersio politikak bizitza familiarra izateko eskubidea erautzi zien, bisitak egiteko eskubidea. Aspaldi sufritzen zuten gaixotasunen erruz bidaia luzeak egitea eragozten zien”, adierazi zuten mobilizazioan. Sakabanaketak ondorio argia izan du azkenean; “Lurdes eta Pili beraien semeak ikusi gabe hil dira”.

Gogoan izan, motxiladun haurren errealitatea plazaratzen aritu ostean, orain dispersioak senide nagusien eta gaixo daudenengan duen eragina gizarteratu asmo dutela. “Urrunketak denoi eragiten digu, baina bereziki gogor eragiten die zaugarri diren pertsona horiei”, ohartarazten dute. Usurbilen Nahi Di-



Aurreko astean zendutako euskal presoen bi senide ekarri zituzten gogora otsailaren 23ko elkarretaratzean.

tugu bilguneak gogorarazten dutenez ez dira lehenak, eta “zoritarrez, azkenak ere ez direlakoan gaude”.

Elkartasun kanpaina

Duela hilabete batzuk Etxerat-ek bere gain hartu zuen presoek asistentzia juridikoa eta osasunari dagokiona. Horrek eragindako gastuari aurre egiteko Kinkea ekime-

na abiatu dute orain. Urtean zehar diru ekarpena egiteko elkartasun kanpaina dugu honakoa. Diru ekarpenon truke, lau lamina eta zenbaki bera duten lau boleto eskuratzen dira, urtean zehar egingo diren lau zozketarako. Sari potoloak iragarri dituzte dirutan.

Informazio gehiago: kinkea.eus

Murrizketen aurkako protesta



Murrizketen Aurkako Plataformak garraio zerbitzu publikoen aldeko martxa egin zuen asteartean, Donostian.

Garraio zerbitzu publikoetako murrizketen aurkako protesta egin zen asteartean, Donostian. Trafiko Delegaritzatik abiatu eta Gipuzkoako

Foru Aldundiaren egoitza nagusian amaitu zen martxa. Murrizketen Aurkako Plataformak 7.000 sinadura batu ditu azken asteotan, horietako

asko Usurbilen. Sinadura horiek denak Foru Aldundiaren egoitzan erregistratu ondoren amaitu zen astearteko protesta ekitaldia.

Erraustegiko obretako lan baldintzen salaketa

Zubietako erraustegiko eta Anoetako futbol zelai-ko obretako lan baldintza kaxkarrak salatu ditu LAB sindikatuak, Lan Ikuskaritzan. Zehazkiago esanda “obra lanetan aritzen den EPB azpikontrataren aurkako” hainbat salaketa aurkeztu zituen otsailaren 16an. “LAB-ek egiaztatu ahal izan duenez, azpikontrata honek eraikuntzako hitzarmenak baimentzen duena baino soldata baxuagoak eta lanaldi handiagoak ezartzen ditu”, ohartarazi dute sindikatutik. Salaketa honen kopia Donostiako Udaleko alkate Eneko Goiari helarazi diotela gaineratu du LAB-ek, “egoera honekin buka dezan”. Udal honekin batera, Aldundiak sustaturiko obrak dira hauek. Eraikuntzan, lan kostuak merketzeko azpikontratetara jotzea praktika orokortua dagoela salatzen dute. Eta ez dela neurrik ezartzen, hitzarmena betetzen ote den egiaztatzeko.

Udaletxeko langileen lanuztea

Asteazken honetarako, lau orduko lanuztea deitu zuten ELA eta LAB sindikatuak “Araba, Bizkai eta Gipuzkoako udal eta foru aldundietan, lan-baldintzen alde, enpleguaren defentsan eta zerbitzu publikoak indartzea eskatzeko”.

Astelehenean egin zuten batzarra udal langileek, bi sindikatu horiek deituta, eta lanuzteekin bat egitea erabaki zuten. “Ondorioz, 11:00etatik 15:00etara premiazko tramiteak eta zerbitzuak egin ahal izango dira soilik”, udal iturriek adituz eman zuten.

Usurbildar ugari irtengo dira igande honetako Lilatoian

Igande honetan, goizeko 10:30ean hasiko da Donostiako 29. Lilatoia. Asteartean amaitu zen izena emateko epea. 6.000 lasterkarirentzako lekua dagoen ekimenean, astelehen iluntzerako jada 5.966 emakume zeuden apuntatuak, tartean 71 usurbildar. Argibide gehiago jaso eta izen emateko, sartu helbide honetan: kirolprobak.com

Aurtengo inskripzio solidarioak euro 1 bideratuko du "Retinosis Gipuzkoa, Begisare" elkartera. Hori dela eta, aurtengo leloa #ItzaletikArgitara izango da eta honek esanahi bikoitza gordetzen du; batetik, Begisare elkartearen helburuetako bat azpimarratu nahi du, eta gaixotasun honek eragindako pertsonen ikusmena hobetzea da. "Eta bestetik, bizitzako eremu guztietan



58 emakume usurbildarrek parte hartu zuten iaz. Aurten gehiago izango dira. Astelehenean, 71 zeuden izen emanda. Argazkia: Josune Estella.

berdintasuna lortzearen beharra nabarmendu nahi du, matxismoa alde batera utziz eta berdintasuna aldarrikatuz", ohartarazi du antolakuntzak.

Martxoak 4, igandea, Donostian

- 9:40 Aero-zumba beroketa saioa, Boulevard-ean.
- 10:00 Begisare argazkia Bou-

levard-eko kioskoan.

- 10:30 Lilaton lasterketa hasiko da, Boulevard-ean. Izaskun Osések, urrezko domina Rioko paraolimpiar jokoetan, emango dio irteera lasterketari.
- 11:30 Sari banaketa batukadarekin Alderdi Ederren.
- 12:30 Lilapotea trikitilariekin (Ordizi, Rekalde, Eiger, Herria, Aurresku eta Dj Miao).

Asier Zubiria eskubaloia uztera doa

Prensaurreko bidez iragarri duenez, denboraldi amaieran Bidasoa Kirol Kluba utziko du usurbildarrak, baita eskubaloia ere. Erronkak beteta, asebeteta doala adierazi du. Eskerrak helarazi dizkie Asierrek, lagun eta senideei. Usurbil Kirol Elkarteak sare sozialen bidez adierazi duenez, "profesionaletan bide luzea egin eta gero Asobal Ligan utziko du. Harro gure herritarra izateaz".



Usurbil Kirol Elkarteak adierazi duenez, "profesionaletan bide luzea egin eta gero Asobal Ligan utziko du. Harro gure herritarra izateaz".

Eskubaloi partidak

Martxoak 3, larunbata

- 12:00 Infantil mutilak, Gipuzkoa: Udarregi B-Bergara
- 13:00 Infantil neskak, Gipuzkoa: Udarregi A-Pulpo
- 16:00 Kadete mutilak, Territoriala: Usurbil K.E.-Egia
- 17:30 Jubenil neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Ereintza
- 19:30 Senior mutilak, 1. Nazionala: Usurbil K.E.-Anaitasuna

Martxoak 4, igandea

- 11:30 Kadete neskak, Territoriala: Usurbil K.E.-Aiala B

Futbol partidak

Martxoak 3, larunbata

- 10:00 Infantil neskak: Usurbil F.T.-Mutriku F.T.
- 11:00 Kadete neskak: Usurbil F.T.-Intxaurdi
- 16:00 Jubenil mutilak: Usurbil F.T.-Añorga K.K.E.

Martxoak 4, igandea

- 11:00 Kadete mutilak: Usurbil F.T.-Pasaia K.E. B

Martxoaren 11n, mendi irteera

Andatza M.K.T.-k martxoaren 11rako antolatu du Gipuzkoako Birako 3. etapa. 7:00etan abiatuko dira Oiarde Kiroldegitik. Izena martxoaren 7a baino lehen eman beharko da. Joan etorrirako autobusa eta Eibar-ko Eskarne jatetxean egingo den bazkarirako 30 euroko ordainketa egin, kontu zenbakiotako batean:

Rural Kutxa:
3008 0259 1630 0543 0321
Kutxabank:
2095 5069 0710 6848 980
Xehetasunak: andatza.com

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tif 943 37 08 78
RPS: 28/17
20170
USURBIL

ETXEBIZITZA

Salgai

90 m2 pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m2- terraza, 8 m2 trastelekua eta bertan 33 m2-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Atikoa salgai garajea eta trastelekuarekin. Tel. 665 720 913

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berritua. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosteko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Alokairuan

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

Kanping karroa salgai. Wolder tuareg markakoa. Muntaiak azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosteko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete

bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m² karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zubietan etxeko lanak egiteko emakume bat beharko nuke. Lan-egun erdian. 695 783 202

Zerbitzari bat behar dugu aste-burutarako Artzabal jatetxean eta udaran ordu gehiago. Tarte-ka asteburuak jai egiteko aukerarekin. Garrantzitsua euskara jakitea eta esperientzia izatea. artzabaljatetxea@gmail.com

Zerbitzari bat behar da, kartarekin lan egiteko. Larunbat eta igande eguerditan, lan egin nahi baduzu: 680 483 164

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore personal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catallanaoc-

cidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentzietan. Tel. 632 576 258

Pertsona helduak zaintzen lan egingo lukeen mutil bat naiz. Larunbat eta igandetan, esperientzia daukat. Tel. 632 793 747

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun he-rritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zaindiko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo aste-burutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarako egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo aste-burutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabilta. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garaieak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.



Bejondeizuela!
Larunbat honetan ezkondu zineteneko 50. urteurrena ospatuko dugu. Bejondeizuela! Ondo pasa eguna, etxekoan partetik.



Zorionak Laia!
Hiru urte beteko dituzu martxoaren 1ean!! Muxu erraldoi bat potxola!!



Zorionak Urko prexioxo!!!
2 urte bete dituzu ia. Nola pasatzen den denbora... Eta gero eta gehiago maite zaitugu. Muxu asko bihotzez etxekoan partetik!



Zorionak Ekai! Iritsi da zure eguna! Ederki ospatu dugu familia eta lagunartean! Muxu potolo pila bat etxekoan partez.

Heriotzak

Patxi Usarralde Laskibar
82 urterekin hil zen otsailaren 19an Aginaga - Usurbilen



Heriotzak

Consuelo Ibarгойen Alzaga
86 urterekin hil zen otsailaren 20an Usurbilen



Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gauz zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantxatze-ko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazte-leran, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketetan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638

877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelheenetik ostiralerara. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edoizen modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketetan lan egi-

teko. Interna moduan, orduka edo gauz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketetan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldarean ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketetan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldetan lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

BESTELAKOAK

Udarregi ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Irailaren 13an kaketua txiki bat (ninf) galdu da. Txuria eta eskubiko hankan eraztun urdin bat duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606 060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatuz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortadorea salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. Telefono zenbakia: 637 974 994

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunear. Doan hartu daitezke. Astelehene ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epategia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 01 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 02 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 03 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 04 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astelehena 05 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 06 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 07 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Martxoak 01 - Martxoak 11

Osteguna 08 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 09 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 10 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 11 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda martxo

02 ostirala

- Udarregi Ikastolaren 50. urtemugako abestia grabatzeko entsegua. 16:30ean, Udarregi Ikastolaren Agerialde eraikineko musika gelan.
- Txosna batzordearen bilera. 22:30ean Sutegin.

03 larunbata

- "Sagarrondotik sagardora" ikastaro zikloa. 09:00-13:00ean Potxoenean.

04 igandea

- Haurrentzako zinea: "Axel, heroi txikia". 17:00etan Sutegiko auditorioan.
- 15. Laburbira. 19:30ean Sutegiko auditorioan. Sarrera, doan.

Larunbat honetan, hilerrira joan eta itzultzeko garraio zerbitzua

Usurbilgo Udalak aditzera eman duenez, aurrerantzean, hilabete-ko lehen larunbatean hilerrira joan eta itzultzeko garraio zerbitzua egongo da martxan. Usurbilgo bus-taxiak eskainiko du zerbitzu hau.

Larunbat honetan, bus-taxi zerbitzuak ibilbide berri bat osatuko du. Hilerrira joan etorrian ibiliko da, eguerdiko 12:00etan hasita.

Irteera, San Inazio kalean

San Inazio kalean, Laurok denda ondoko bus geltokitik abiatuko da autobusa. Eguerdiko 12:00etatik 13:00erako tartean ibiliko da, joan-etorrian.



Martxoan hasi eta aurrerantzean, hilabete-ko lehen larunbatean hilerrira igotzeko bus zerbitzua eskainiko du Udalak.

Ostiral honetan, txosna batzordearen bilera

Jaiak antolatzen segitzeko bigarren saioa deitu du Usurbilgo Jaietako txosna batzordeak. Ostiral honetan, martxoak 2, gaueko 22:30etan Sutegin. "Animatu, herriak eskertuko dizu, zuk eskertuko duzu! Jaiak herritik eta herriarentzat! Gora jai, herrikoi, parekide eta euskaldunak!".

'Sagarrondotik sagardora' ikastaroa

Aurreko larunbatean abiatu zen ikastaroa. Hurrengo hitzordua, martxoaren 3an. Aitor Etxeandiarekin batera, "Sagastien neguko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak" gaia landuko dute Potxoenean.

Izena emateko: 943 361 114
alkartasuna@usurbil.com

Datozenak



Astelehenean, odol ematea anbulatorioan

Martxoaren 5ean astelehenarekin, 18:00-20:30 artean odol ematea anbulatorioan. Gipuzkoako odol emateen bilgunetik gure ekarpena egitera animatzen gaituzte. "Zure ekintzaren isla zara, izan emate!". Informazio gehiago: gotatanta.eus

"Angula ustelak" hitzaldia Sutegin

"Angula ustelak, zer gertatzen da Euskal Erregimenari aurre egiten badiozu?" izenburupean, Gipuzkoa Zutikeko kideek hitzaldi sorta bat antolatu dute. "Gaur egun agintean dagoen Euskal Erregimenaren politika nolakoa den ikusteko, oso erreprezentatiboa da Ainhoa Intxaurrendietak eta Iñaki Errazkinen kasua", ohar bidez jakinarazi dutenez. Usurbilgo hitzaldia martxoaren 7an asteazkena, 19:00etan Sutegiko auditorioan.

ELORZA

OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Iñaki
Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITZAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

600 024 825





*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31



SAGARDOTEGIA

berria lagun egin nahi duzu?

Zure ohitura eta baliabideen arabera, aukeratu ondoen datorkizuna:

BERRIALagun harpideduna*

Aukeratu harpidetza mota:

Asteartetik igandera, **hilean 36 €**

Asteartetik ostiralera, **hilean 23 €**

Ostiraletik igandera, **hilean 21,3 €**

Asteburukoa, **hilean 15 €**

BERRIALaguna

hilean 10 € edo **urtean 100 €**



Euskarazko kazetaritza independente eta kalitatezkoa egiten segitzeko, zure konpromisoa ezinbestekoa dugu.

Idatzi gurekin etorkizuna. Izan **berria laguna**
Berria.eus/geroazugan • 943-30 43 45



*Ordainketak: urtekoa, bi zatitan, edo lau zatitan



**ETORKIZUNA
ERAIKIZ**

**Gipuzkoaren etorkizuna
guztion ardura da. Eraiki
dezagun guztion artean.
Aurea hartzea da
horretarako modu
hoberena.**

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA
ERAIKIZ**
El futuro de Gipuzkoa

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz

URDAIRA



Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, **HERNANI**



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 6ra
**EGUERTIAN ERE IREKITA
TXOTX GARAI**

Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan **ITXITA**

Larre-Gain Baserría **Ereñotzu - Hernani**
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



Iruin Sagardotegia

Etorri eta dastatu sagardo berriak

30 Urte baino gehiago Usurbildarrei
sagardo hoberenak eskeintzen.

Iruin, beti zuegandik gertu.

943.361.229

Petritza bidea 12, Zubietza

ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • **943 55 69 81**



Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

943 37 39 95

aginaga

SAGARDOTEGIA

Hotela **

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIK!

ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA

943 36 67 10

Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com

*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*

%100 bertako sagarra

Tel: 943 365 031

Santuenea